

HAUR ANTZERKI

MARIJANE MINABERRY

HAUR
ANTZERKI

TORIBIO ALTZAGA SARIA, 1982
Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa

© MARIJANE MINABERRY

© BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Espainako Enparantza, 1

BILBAO-1

ISBN: 84-7231-966-0

D. L.: BI-1446-83

Imprimatzaile: Imprinta Boan

Particular de Costa, 12-14, 7.º

Bilbao

Aurkibidea

- Joanes-zirtzil, 9
- Manexen nahigabeak, 15
- Auzitegian, 19
- Marikitaren otoitza, 25
- Eri handia, 29
- Abereen eguberri, 33

Oharpen bat.—Abere ainitz ezartzen dugu gure haur-antzerkietan. Hurrek maite dituzte abereak. Bainan ere, abere itxurarekin, gehiago hurrek parte hartzen ahal dute antzerki batean. Guretzat munta haundia du ainitz haur-antzerkilari izan dadien.

Nahitarat antzerki hok laburrak dira. Ez da sobera galdegin behar haur bati. Arpegietan margoak eta gorputzari eratzikitzen diren arropa bereziak soinean, biziki gauza pollitak egiten ahal dira. “Maquillages de fête” deitu liburutik hartua dugu etsenplu gisa emaiten dugun gata.



JOANES-ZIRTZIL
edo
Maider neska batentzat

Mutiko bat lurrean jarria, zikin-zikina, zapeta bat zangotik kendu eta mahain gainean ezartzen du. Liburu bat urratzen eta berduratzen du... (eta abar). Sartzen da emazte apain bat.

ANDEREA

—Hela! ... Badea nehor etxe huntan? Egun on, haurra. Nola duzu izena?

JOANES

—Ez da zure egitekoa!

ANDEREA

—Aha! Eta.. zer ari zira hor, lurrean jarririk?

JOANES

(Zapetarekin lurra joiten duela) Arriola, marriola, trùntxo, muntxo...

ANDEREA

—Ez duzu ihardetsi nahi? Ez...? Ontsa da. Bainan nik, badakit nor ziren. Zure izena ere ezagutzen dut. Auzoan erran dautate: zoazi hantxeko etxe hartarat, eta han, aurkituko duzu mutiko ttipi bat hain zikina nun Joanes-zirtzil emana baitiote izena”. Zu ikusi-eta, segur niz Joanes-zirtzil zu zirela.

JOANES

—Nik ez dut Joanes zirtzil izena!

ANDEREA

—Nik berriz uste dut baietz. Izena ontsa emana dauzute. Ni, Amaia niz. Etxez etxe banabila haurren ikusten. Perestuak eta garbiak saristatzen ditut. Zikinak eta alferrak aldiz gatzigatzen.

JOANES

(Mihia tiratuz.) —Horra zuretako!

AMAIA

—Itsusi bat zira... Manera hunek ez du hola irauten ahal. Banoa ur eta salboin keta garbitasun puxka baten egiteko.

JOANES

—Amaia, debruaren arreba debrusa, zoazi kanporat.

AMAIA

—Ez niz jostagura... Ekarriko dut ere zaharo mehe bat zure zangasaharren berotzeko. Ni jin artean, anaiarekin josta zaite.

JOANES

—Nik ez dut anaiarik, eta ez nahi ere.

AMAIA

—Zure anaia ez duzu ezagutzen, bainan zaude gostuan, harek ezagutuko zaitu. Ixtant artio...

JOANES

—Amaia, sorgin beltza, zoazi kanporat. *(Amaia ateratzen (edo jalgitzen) da).*

JOANES

(Zapetarekin lurra joz). Errota, kafira, zoazi kanporat... *(sartzen da urxintx bat, buztan flokatua airean).*

URXINTXA

—Egun on, Joanes-zirtzil. Baratzerat jina niz intzaur batzuen bil-
tzerat.

JOANES

—Nor zira zu?

URXINTXA

—Ikusten duzu, zuhaitzez-zuhaitz jauzika dabilan urxintx bat.

JOANES

—Ez zitut ezagutzen...

URXINTXA

—Ez baituzu kasurik egiten. Hor nabila egun guzia jauzika, zuen etxondoko oihanean.

JOANES

—Nik ere maite nuke, zuhaitzez-zuhaitz jauzika ibiltzea. Zu ote zira ene anaia?

URXINTXA

—Zure anaia, ni? Jainkoak begira nezala hortarik! Ez duzu ikusten ene larruaren garbia? Ez nuke, segur, zure anaia izan nahi. (*Ateratzen da*).

JOANES

—Urxintx ergel buztan harroa, zoazi debruetarat! (*sartzen da xori bat*).

XORIA

—Egun on Joanes-zirtzil.

JOANES

—Egun on xori pika buztana...

XORIA

—Zer ari zira, lurrean jarririk?

JOANES

—Anaiaren beha nago.

XORIA

—Anaia baduzu? Hegalka nabilalarik zuen etxe inguruan ez dut sekula ikusi... Anai bat baduzu... Ez nakien batere...

JOANES

—Nik ere ez nakien. Bainan Amaiak erran daut jinen dela enekin jostatzerat. Ez zira zu, bederen, ene anaia?

XORIA

—Ni, zure anaia? Ez, egiazki. Baratze guzia miatu eta ere ez duzu ni baino garbiagorik hatxemanen. Goizetik hunat, mokoarekin ene luma lisa eta lisa ari naiz. Zure anaia, ni? Zer duzu buruan? (*atera-tzen da*).

JOANES

—Xori moko mirua, zoazi kanporat! (*sartzen da gatu bat*).

GATUA

—Agur, Joanes-zirtzil...

JOANES

(*kantuz*) —Ene gatua pitzitzi, da dena ile ta zitzi...

GATUA

—Eman zauzu bertzetaz burlatzea...

JOANES

—Anaia jin artean, zato enekin jostatzerat...

GATUA

—Zure anaia? Nungo anaia?

JOANES

—Ez dakit nik ere. Behar bada zu zira ene anaia?

GATUA

—Nola? Zure anaia nizan? Baduzu burutik? Goizetik hunat ene larruari milika eta milika ari naiz. Ez duzu ikusten ene garbia? So egizu zure buruari. Pff! zikina! ez nuke, segur, zu bezalako anaiarik nahi (*ateratzen da*).

JOANES

—Gatu maltzur buztan luzea, zoazi kanporat! (*Sartzen da xerri bat erranez*): Agur, anaia! Zer diozu?

JOANES

—Zu, zaude ixilik. Ez zira ene anaia.

XERRIA

—Nola, ez nizala zure anai? Ba jauna, ni zure anaia naiz.

JOANES

—Zoazi zalu zalua hemendik kanporat (*kanporat*).

XERRIA

—Zurekin jostatzerat jina naiz...

JOANES

—Ez zira ene anaia eta ez dut zurekin jostatu nahi...

XERRIA

—Ez ene anaia, zu?... Familia ontsa ezagutzen dut! So egizu zure buruari, zure arropari. Zato enekin... Biak mainatuko gira etxondoko putzuan. Gero, ongarrian itsaloskatuko gira.

JOANES

(Zapetarekin lurra joz, nigarrez). Ni ez niz zure anaia eta ez dut ongarria maite!

XERRIA

—Ta, ta, ta. Zaude ixilik... Aski da zuri so egitea. Aspaldi ez dut holako anai pollitik kausitu. Ale, zato... Jostatu ondoan, ukanen dugu apairu on bat: untzi kuzkina zahiz zopaturik.

JOANES

(Nigarrez). Zoazi hemendik! Ez dut untzi kuzkina maite nik.
(Amaia sartzen da).

AMAIA

—Zer pasatzen da hemen? Joanes nigarrez? Nor ikusten dut hemen? Xerri bat! Hauxe da manera!

XERRIA

—Anaiaren ikusterat jina niz...

AMAIA

—Zure anaia? Anaia baituzu hemen, zuk?

XERRIA

—Ba, Joanes-zirtzil...

JOANES

—Ez da egia! Ni ez naiz xerria!

AMAIA

—Xerriak egia dio, Joanes-zirtzil. Zuri dago hautatzea: edo xerriaren lagun egon, edo mutiko garbi eta prunt bat bilakatu.

JOANES

—Hitzemaiten dauzut hemendik goiti garbiki egonen nizala. Ez dut xerriaren iduria izan nahi.

AMAIA

—Behingotz sinetsiko zitut. Bainan, kasu... zure hitzaren jabe agertu behar duzu.

JOANES

—Zuk nahi dituzun guziak eginen ditut...

XERRIA

—Holakorik oraino... Ez duzu enekin jin nahi? (*ateratzen da erranez*). Hobe, segurki. Hola, ur zikin gehiago izanen da enetako.

MANEXEN NAHIGABEAK

Haitz haundi bat ezker aldean; zilo haundi bat badu trunkoaren erdian. Bizpahiru adar ezker eta eskuin. Eskuin aldean etxe bateko atea. Manex ateratzen da etxetik, aizkora sorbaldan. Emaztea haren gibeletik ateratzen da.

MANEX

(Zeruari so). —Egunederra heldu zauku. Etx'ondoko oihanean begistatua dut haitz ondo bat ederra. Behar dut aurtiki. Negu guziko egurra emanen dauku.

KATIXA

—Hobe, segur. Urte buru batetik bertzerat guk erretzen ditugun egurrak!

MANEX

—Ekar-azu, ori, xorrotx harria bere koparekin. Aizkora ahoak ardura beharko du firrixta bat lana erreki egitekotz. *(Katixa sartzen da eta laster ateratzen xorrotx-harriarekin. Arte hortan Manex xix-tuz ari da, aizkora ahoa behatzarekin miatuz).*

KATIXA

—Orizu! *(Manexek kopa gerrian ezartzen du eta harriarekin firrixt-farraxt aizkora ahoari emaiten dio pasaldi bat).*

MANEX

(Aizkora ahoa miatuz). Holako aizkora batekin eginen dut lan. Sarri artio, Katixa. Eguerdi irian jinen niz gibelerat.

KATIXA

—Onts da, bazkaria prest izanen da *(Katixa etxean sartzen da. Manexek egiten ditu zombait urrats. Ezkerretik sartzen da Pattin).*

PATTIN

—Egun on, Manex. Norat ari zira hoin goizik, aizkora bizka-
rrean?

MANEX

—Ori, zuretako lanerat.

PATTIN

—Enetako? Debria, hori berri ona erraiten dautazu. Eta... jakiten ahal duta zer egin gogo duzun enetzat?

MANEX

—Etx'ondoan badugu haritz bat xoragarria. Segur naiz adarretarik sei eztera egur bederen aterako ditudala. Trunkoarekin, zure segerian, egiten ahalko dituzu taularik ederrenak. Zurgin onak nahi du gai ona.

PATTIN

—Arrazoin duzu. Erranik aski. Hitzaz-hitzaz, trunkoa (*enborra*) atxik azu neretzat. Bazkari bat ona pagatuko dauzuz gainerat. Pasa egun on, Manex (*eskuinetik ateratzen da*).

MANEX

—Bai, zuk ere Pattin. (*Lekuaren gainean urratsak egiten ditu haitza erdiraino pusatzeko artean. Iduri du hola kurri dabilala*).

Huna beraz ene haritza. (*So egiten dio alde guzietarik*) Ba, egiazki, arbola ederra. Euskal herri guzia kurriturik ere ez dakit bertze bat hatxeman litaiken huni joanen duenik. Lot giten beraz lanari. (*Xixtuz maripullza pausatzen du, atorra besoak goititzen. Eskuetarat tu egiten du eta eskuak torratzen, aizkora eskuetan hartzen. Boleran buru gainerat altxatzen du eta... arbola zillean agertzen da huntz haundi bat, begi haundi batzuekin, diola:*

HUNTZA

—Geldi! geldi! Arbola hau ene egoitza da. Kasu zuri, Manex, zuhaitz hau hunkitzen baduzu!

MANEX

—Ha, ha! Gaizo huntza. Zer uste duk hire begi haundiekin izituko naukala? Huntz bat goiti beheiti berdin biziko gituk. Ken hadi bixta hortarik ene lana segi dezadan.

HUNTZA

—Arbola huni piko bat bera egiten badiozu, oihaneko huntz guziak bilduko ditut eta zure etxe inguruan akelarre eginen dugu gau guziez. Zure emazteak eta zure haurrek ez dute gehiago begirik hes-ten ahalko.

MANEX

—Atx!... Hori bertzerik duk ahatik... (*Boneta altxatuz buruan hazka*). Bon, bon. Tira zak ttanttoa. (*Arbolari so*). Holako haitz ederra! (*beztiturik badoo etxerat. Sartzen da eta berehala ateratzen emaztea gibeletik*).

KATIXA

—Ez ahal zitu huntz zozo batek gibel-araziko. Denen irri-egingarri ibili behar duzu.

MANEX

—Arrazoin duzu. Huntz edo ez huntz, oraikoa haitza nerea da. (*Berriz haitzaren ondoan da, maripultza kentzen... eta abar Boleran haizkora goltitzen du eta... boza miru bat entzuten du. Urxintx bat agertu da arbola adar batean*).

URXINTXA

—Geldi! Kasu zuri zuhaitz hau hunkitzen baduzu. Ene egoitza da eta ene ttipiak hor dabilta, jauzika, adar batetarik bertzerat.

MANEX

—Horra bertzea, orai! Ez duka aski zuhaitz oihan guzian hire buztan harroaren paseatzeko? Zer uste duk Manex aizkolaria urxintx batek gibel-araziko duela?

URXINTXA

—Zuhaitz huni piko bat bera egiten badiozu, oihaneko urxintx guziak elgarretaratu eta jinen gira ganerrearantz dituzun gauza guzien jaterat. Zure haurrak eta zure emazteak goseak hilen ditu.

MANEX

—Atx! Hori bertzerik duk ahatik... (*Boneta altxatuz buruan hazka*). Bon, bon. Tira zak hik ere ttanttoa (*zuhaitzari so*). Holako haitz ederra! (*abiatzen da etxeari buruz. Bat batean gelditzen da*) Karatxo! Zer nu urxintx batek izitu behar? Halo, Manes, halo. Baiuk ederrik! (*Heldu da gibelerat eta abar... Aizkora altxatzen du*).

Geldi! Arbola hau ene egoitza da. Hunkitzen baduzu, kasu zuri!

MANEX

—Nor mila debru da orai berriz? (*haitz gibeletik agertzen da azkon sudur luze bat*). To! Ez ginian bertzerik eskas, azkon sudur luzea baizik. Nun habila hemen?

AZKONA

—Ene egoitzaren zaintzen.

MANEX

—Jakiten ahal duta nun den hire egoitza?

AZKONA

—Haitz eder huntan.

MANEX

—Ez duka oihan guzian bertze egoitzarik hautatzen ahal?

AZKONA

—Aiten-aitek hautatu egoitza da. Ni hemen biziko naiz eta ene tti-piak ere ba.

MANEX

—Hori ikusikodiagu ixtantean. Hi bederen menekoa hut. Ostiko bat ona dakitan leku batean eta adio azkona.

AZKONA

—Haitz hau hunkitzen baduzu, oihaneko azkon guziak elgarretaturik jinen gira, zurru-zurru, zure etxeko zimenduen suntsitzerat. Zure haurrek eta zure emazteak ez dute gehiago leihorrik ukanen.

MANEX

—Bainan, zer duzie denek ene alderako aiherkunde hori? Huntz begi haundia bere zilotik so, urxintx buztan harroa arbol adarretik dena eskarnio, azkon sudur luzea dena mehatxu... Zer erran behar dut nik emazteari? Zer erranen Pattin zurginari? Zer ez dut entzun behar?

(Agertzen da bildotx bat erranez). Geldi, Manex, geldi! Bihotz haundiko gizona zirela erakutsi duzu. Jauzika eta punpeka aintzinduko zitut etxerat. Katixari erranen diot zer bihotz oneko senarra duen. Segur niz besoak zabal egonen dela zure beha. Eta bihar, oihan zolan, erakutsiko dauzut haritz ba, ez hau bezain ederra, bainan zuen doia egur ukanen duena.

(Bildotxa badoa jauzika, oihala jausten da Manex etxerat abiatzen delarik).

AUZITEGIAN

*(Presidenta, muxtetx haundi batzuekin eta bere karguak galdegi-
ten dituen jauntziekin. Bi jendarma muxtatxdun hek ere, ate baten bi
aldetarik xutik. Haur multxo bat alki batzuetan jarriak, presidentia-
ren parrean. Hok behar dute jujatu auzia. Idazkari bat presidentia-
ren ondoan mahain batean, izkiriatzeko tresna guziekin).*

PRESIDENTA

Jaunak eta andereak, egun bilduak gira auzitegi huntarat Peio eskuzikinen jujatzeko. Jandarmak, sar-araz zazue hobenduna. *(Ate-
ratzen dira eta bi eskuetarik atxikiz ekartzen dute Peio).*

PRESIDENTA

Huna beraz jujatu behar dugun gizona. Auzia hasi baino lehen, Peio eskuzikin, egizu juramentu egia erranen duzula.

PEIO

(Besoa altxatuz). Juramentu egiten dut egia erranen dutala.

PRESIDENTA

Ontsa da *(Idazkariari buruz)*. Hemendik aintzina idatziko dituzu auzitegi huntan erranak izanen diren guziak.

IDAZKARIA

Ontsa da, jaun presidenta. *(Gero ikusten da beti izkiriartzen ari norbeit mintzo den guziez).*

PRESIDENTA

Huna beraz jauntto hunek egin daukun balentria. Urgulueneko astoa ebatsi du pentzean eta Elizondoko ferian saldu *(alkietan adi-
tzen dira murmurika batzu).*

PRESIDENTA

(Mahainari joz).—Bazterrak ixilik edo denak kanporat manatzen zaituztet. Erraiten nuen beraz Peio Urgulueneko astoa pentzean ebatsi zuela eta Elizondoko ferian saldu.

PEIO

Barkatu jauna, barkatu... Ez dut Urgulueneko astoa ebatsi, bainan asto bat... bat bakarrik...

PRESIDENTA

Asto bat bakarrik ez zauzu aski ala zer?

PEIO

Pentzean gelditzen ziren oraino bertze bederatzi...

PRESIDENTA

Gelditu balira ere bertze hogoi, ez zinuen bat ere ebatsi behar. Ohointza ohointza da.

PEIO

Eman zite ene lekuan, jaun presidenta. Egun guzietz begien aintzinean hor ditut hoin bertze asto alfer, asean daudenak, eta ni bizkarrez egurketa!

PRESIDENTA

Bainan astoa ez zinuen egurketako! Saldu duzu!

PEIO

Ba, bainan sariarekin bertze asto bat erosi gogo nuen neretzat.

PRESIDENTA

Eta... Zendako ez duzu zuretzat atxiki ebatsi astoa?

PEIO

Jabeak ezagutuko baitzuen.

PRESIDENTA

(*Buruan haska*). —Hala da hori ere... Galdegin bazinio, Urgulueneko nagusiak asto bat prestatuko zauzun egurketako.

PEIO

Ageri da ez duzula ezagutzen. Behin galdegin diot. Errepostu eman daut Urgulueneko astoak ez direla ene gisako gizon herbail batzuendako eginak...

PRESIDENTA

Bego hortan... Bainan astoaren ebastea eta saltzea ez zauzu aski iduritu. Bigarren ohointza bat egin duzu Elizondon saldua zinuen astoa ebatsiz bere jabe berriari.

PEIO

Erostuna ez nuen ezagutzen eta Urgulueneko nagusia ba. Nahi nuen, nehor ohartu gabe, astoa berriz pentzean ezarri. Damurik bi mugazain txar ene bidean izanki...

PRESIDENTA

Mintza zaitte errespeturekin mugazainez...

PEIO

Bizia nik baino errexkiago irabazten dute.

PRESIDENTA

Errazu uste duzula. Gaez gau mendian ibili behar, nun zer ikus eta nun zer hatxeman...

PEIO

Aski dute ohean egoitea, bero beroa. Hilabete saria edozoin gisaz segurtatuta dute. Aldiz nik...

PRESIDENTA

Zertarik bizi zira? Zer dira zure mozkinak?

PEIO

Peointzan ibiltzen naiz etxez-etxe.

PRESIDENTA

Ontsa pagatua zira, zure lanaren ordain...

PEIO

Goseak ez hiltzeko doia. Argi hasteko jeikirik, etxeko baratzea egiten dut lanerat joan aintzin. Arratsetan, leher egina etxerat jin eta, egurketa joan behar dut nahi badut ene haurrek berokia puxka bat izan dezaten etxean. Alta, herri huntako jendea ona da neretzat. Arroltze, gasna, baratze-kari eta bertze emaiten dauzkidate. Bainan ene ontsa pagatzeko, zer mozkin dute berek?

PRESIDENTA

Zintzurra karrakatuz eta mahain gainean "plano" joiten eriekin) Paso... paso... Jendarmak, ereman zazue gizon hau hemendik. Jujekin ikusi behar dugu zer erabaki hartu behar dugun.

(Jandarmak eta Peio ateratzen dira; jandarmak gibelerat jiten).

PRESIDENTA

Jaun andereak, nik bezala aditu dituzue galdeak eta erantzunak. Elgarrekin ikus dezagun orai zer gaztigu merezi duen Peiok.

MUTIKO BAT

Peio denek ezagutzen eta estimatzen dugu. Gizon ona da. Ez dut uste gaztigurik eman behar diogun.

NESKA BAT

Ba, bainan ohointza bat egin du. Behar du pekatu.

BERTZE NEXKA BAT

Pekatu... pekatu... Ez duzu uste aski pekatzen duela egun guziez deraman biziarekin?

MUTIKO BATEK

Egia aitor dezagun. Nehork ez du nigarrik egin jakinik Urgulue-neko asto bat faltatu dela. Denek ezagutzen dugu jende horien haundigoa eta bihotz idorra...

BERTZE MUTIKO BAT

Horiek denak egiak dira. Halere zerbaitek kitzikatzen daut barnea. Orogen buru, Peio diru meta baten jabe da eta diru hori ez da harena. Behar diogu beraz bere egitate txarra barkatu, bainan diru hori jabeari itzultzekotan

BERTZE MUTIKO BAT

Ebatsi duen astoa baino astoago geldituko da gaizo gizona.

NESKA BAT

Uste dut zerbait egiten ahal dugula denen hatxean ezartzeko Peiori galdeginen diogu diru hori gibelerat eman dezan. Gero, herrian eske bat muntatuko dugu Peiori asto baten erosteko.

PRESIDENTA

Biba zu anderea. Biziki erabaki ona litaike zuk aipatzen duzuna. Nahi baduzue, bozkatuko dugu jakiteko bakotxaren gogoko berri. Adosean denak altxa beza besoa *(denek altxatzen dute).*

PRESIDENTA

Jaun andereak, gizonki eta euskaldunki trenkatu duzue egungo auzia. Goresmenak hartze dituzue. Jandarmak, sar-araz zazue Peio.
(Peio ekartzen dute bere lekura eta jartzen da).

PRESIDENTA

Peio, egon zite xutik. Huna zure herritarrek zer erabaki duten. Dirua gibelerat emanen duzu bere jabeari. Egintza horren alderat, zure herritarrek eske bat muntatuko dute herrian zuri asto baten pagatzeko.

PEIO

(Laguneri so). Holakorik izaiten ahal dea? *(nigarra xukatuz badoa lagunak besarkatzerat)* eskermila... eskermila.
Oihala hortan hesten da.

MARIKITAREN OTOITZA

(Ama josten ari da edo galtzorratzetan, kadera batean jarririk. Marikitak besoetan kulunkatzen du bere panpina, kadera itipi batean jarririk)

MARIKITA

(Kantuz)

*—Bubaño, ene ñimiñoa
Bubaño egin azu lo*

*(Fais dodo Colas mon
petit frère-en atrean)*

AMA

Marikita, ezar-azu panpina hori ohakoan eta zato hunat otoitzaren ikasterat.

MARIKITA

Zaude ixtant bat, ama. Panpina ez da oraino lokartua.

AMA

Ezar-azu ohakoan, eta bera lokartuko da.

MARIKITA

Egun ez da batere ontsa. Ez dakit zer duen.

AMA

Nik badakit arras ontxa.

MARIKITA

Uste duzu xixariak dituela?

AMA

Ez, panpinak ez ditu xixariak. Bainan Marikitak ez du otoitza ikasi nahi... Ale... emazu panpina hori ohakoan eta zato hunat zaluzalua.

(Marikita xutitzen da, kantuz, eta panpina ohakoan ezartzen, hasteko atrea segituz)

Ama hortxe da, kexatzen ari,
Samurtuko da, nik uste sarri.
Bubaño, ene ñimiñoa,
Bubaño, egin-azu lo!

AMA

Bi eskoin, bi ezker, eskoin bat, ezker bat. Hara, zure kantu xoxoarekin berriz ere tronparazi nuzu *(edo makur-arazi nuzu)*.

MARIKITA

Horra panpina etzana.

AMA

Ekar-azu zure kadera hori ene ondorat *(hinkili-hankala, zango baten eta bertzearen gainean ekartzen du)*.

AMA

Hea ernatuko ziren hunat lasterrago. Ekar-azu kadera hori behar den maneran, haurra! *(Marikittak egiten du)*.

AMA

Bon... Ikusiko dugu atzo baino hobeki ibiliko giren egun. Ene ondotik errazu:

Ama: —Gure aita zeruetan zirena.

Marikita: —Gure aita zeruetan zirena.

A: —Erabil bedi sailduki zure izena.

M: —Erabil bedi sailduki zure izena.

A: —Etor bedi zure erreinua.

M: —Etor bedi zure erreinua.

A: —Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurtean ere.

M: —Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurtean ere.

A: —Egizu egun gure eguneko ogia.

M: —Egizu egun gure eguneko ogia.

A: —Barka zkidaguzu gure zorrak.

(Marikita, burua eskuetan, ixllik).

AMA

(Boza altxatuz). Barka zkidaguzu gure zorrak...

MARIKITA

Beti ixilik...

AMA

(Kexatua). —Marikita, ez dugu egun ere atzoko komedia bera hasiko. Aditzen duzu! Orai arte biziki ontsa ari zira eta bat batean hortxet mututurik. Ez baduzu segitu nahi, samurtuko niz... Egiazki, gero. Errazu, ene ondotik: barka zkidaguzu gure zorrak...

MARIKITA

Zaude ixtant bat, ama. Ez dut oraino horren aintzineko lerroa bururatua... Ogi hutsa ez baitut maite, otoizten nuen jainkoa xokolet puxka bat eman zezadan beti ogiarekin...

ERI HAUNDIA

Antzerki itipi hunen "haria" Courteline deltu idazleari hartua da. Bainan ez dut antzerki hori sekula irakurtua eta dena nihaurek bezitua da delako haria.

* * *

Haur bat kadera batean, kuxinaz inguratua. Zintura batekin estekatua da kaderari. Gerriraino estali batez inguratuak ditu zangoak.

AMA

—Gaixo ene ñimiñoa, zu. Ontsa zirea kadera hortan? Ba? Zaude, ekarriko dauzut ogi eta selera. Janen duzu ogi eta selera?

HAURRA

(Sinkullnaka). —Ba... Ekar-azu ogi guti eta selera ainitz *(ama ateratzen da, burua mugituz, hats-beherapenka).*

AMA

—Zaude mugitu gabe ene beha. Heldu niz berehala *(ixtantean heldu da gibelerat).*

AMA

—Horra, haurra. Hea zoin polliki janen duzun...

HAURRA

—Ez dut nahi. Oñoñak nahi ditut.

AMA

—Oñoñak? Tenore huntan? Bainan, gaixoa, amak ez du oñoñarik etxean! Bihar ekarriko daukitzut Donibaneko merkatutik. Orai, ogi eta selera janen duzu, medikua ixtantean jinen baita. Hea zoin polliki janen duzun...

(Haurrak litoika selera milikatzen du eta ogia uzten).

HAURRA

—Ogia ez dut nahi. Tripako mina emaiten daut.

AMA

—Gormant txarra... Holakorik ez da egiten. Nola egonen zira xutik ogirik ez baduzu jaten? (*bortan joiten dute*)Xo! Medikua hemen dugu. Egonen zira prestu-prestua (*atea ideklitzen du*). Egun on, jaun medikua. Sar zite.

MEDIKUA

—Agur, anderea. Norbait badugu ez ontsa, etxe huntan? Eri haundi, erran dautazunaz?

AMA

—A, jauna! Ez dakit zerk hatxemaiten gituen! Mutiko hunendako galdegin zaitut. Holakorik ez dut oraino ikusi ene bizi guzian. Perlesia kolpe bat ukan du goizean.

MEDIKUA

(*Harriturik*). —Perlesia! Debrua!

AMA

—Ba, jauna. Goizean, beti bezala, eskolarat igortzeko jeiki-arazi dut. Usaia dutan bezala, ohearen gainean artoski beztitu dut eta gero ohetik jautsarazi. Purt! Ene mutikoa erortzen da. “Kasu, ba, haurra, erraiten diot. Ohe-ainzineko hortan lerratzen zira.” Xutik ezartzen dut. Purt! muttiko txarra berriz lurrerat. Geroztik hunat, zango bat bertzearen aintzinean ezin ezarriz, ixtant guziez lurrean, hortxet ezarria dut, eror ez dadin, kuxinaz inguratutik eta estekaturik. Jainko ona, zerk hatxemaiten gituen! Zakur mehea dena kukuso, gaixo gu!

MEDIKUA

—Ikusiko dugu. Itxurra ederrak ditu, zer nahi dela. Goiz huntan askaldu du, usaian bezala?

AMA

—Ba, ogi eta sclera izpi bat jan du. Deus ez, halo. Bizpahiru egun hautan itxura txarrak kausitzen nazkon, egia erran...

MEDIKUA

(*Haurrat*). —Min duzu tripan? (*buruarekin ez*). Min duzu buruan? (*buruarekin ez*) Gose zira? (*buruarekin ez*). Jan zinezazke oñoñak? (*buruarekin ba*). Aha! Beldur niz haur hunek mihia ere perlesiatua duela.

AMA

(Nigar bat xukatuz). Zu jin aintzinean oraino mintzo zen! Zer behar duzu ikusi? Uste duzu baden deus egitekorik?

MEDIKUA

—Ikusiko dugu. Tira zazu mihia... Bon... *(beharria bularretan ezarririk)*. Hea, egizu eztul... berriz... Bularrak eta bihotza ere ontsa ditu. Bon... bon... Hea, ezar-azu haur hori xutik.

AMA

—Ez du ez araz erori eta minartuko *(estekak kentzen ditu eta haurra xutik ezartzen. Purt! erortzen da)*.

MEDIKUA

—Jes... hauxe da bitxikeria... *(haurra xutitzen dute; purt! berriz erortzen da) (xutitzen dute berriz)*. Egizkitzu bi urrats *(zangoak ez ditu mugitzen ahal, purt erortzen da)*.

MEDIKUA

—Ken-zakozu zangoetako estali hori *(amak kentzen du)*. Bainan, bainan... emazteki tristea, ez duzu ikusten zer egina duzun?

AMA

—Bainan, jauna, nik ez diot deus egin. Ahal bezain ontsa artatu dut zu jin artean.

MEDIKUA

—Bainan, emaztekia, ez duzu ikusten bi zangoak galtza zilo bere-tik ezarriak diozkazula? *(haurra xutitzen da, urrats bat egiten, berriz erotzen...)*

oihala jeusten ari delarik.

ABEREEN EGUBERRI

Katixa eta Peio ari dira eguberriko izai baten apaintzen.

KATIXA

—Uste duzu aski girgileria ezarri dugula izaiaren apaintzeko?

PEIO

—Han eta hemen ezarriko ditugu kolorezko argi-baso hotarik. Piztuko ditugarik, kolore pollitez beztituko dute izaia.

KATIXA

—Baditut xingola floka pollit batzu. Ekartzen ditut berehala.

PEIO

—Zaude, heldu niz zurekin. *(Ateratzen dira eskoineko atetik. Ezkerreko atetik Pinttoren burua agertzen da. Pintto etxeko xakurra da).*

Pintto

(Sartzen da, gibelerat so erranez). —O! Hauxe da gauza xoragarria. Minutx, zato laster zuhaitz hunen ikusterat *(sartzen da Minutx, etxeko gatua).*

MINUTX

—Zer gauza pollita! Ez dut sekula holakorik ikusi.

PINTTO

—Nik ere ez.

MINUTX

—Uste duzu hunkitzen ahal dugula?

PINTTO

—Ni segurik ez niz menturatzen. Bainan gauza jakina da gatuek sudurra denetan sartua dutela.

MINUTX

—Gauza jakina da ere, zakurrak, beren sudur hotzarekin, nun zer aurki dabiltzala beti.

PINTTO

—Bon. Bego hortan. Hea zer dion zuhaitz pollik hunek.

MINUTX

—Ni usatua niz arboletan ibiltzen. (*Patarekin hunkitzen ditu zilarrezko girgileriak. Gero argi basoak*). Argi baso hok zoin pollitak diren! Behazu, iduri dute ezkila eliza dorrean (*eskuarekin bilin-balan ibiltzen du baso bat eta krak! lurrerat erori eta hausten da*).

PEIO

(*Sartzen da*). —Zer aditu dut hemen? Zer ari zirezte hor, Pinto eta Minutx! Badakizue eguberri gaua baino lehen ez dela hemen ibili behar. Zer ikusten dut hortxe? Argi-baso hautsi bat! Zirtzil pare! Hea hemendik kanporat, zalu-zalua! Aurtengo eguberriak sudurra-
ren petik xixtu egingen dauzue. (*Borta idekiz*) Ale! Biak kanporat! (*Pinto eta Minutx ateratzen dira, burua apal*).

(*Oihala hesten da arbola ateratzeko denbora bakarrik*)
Izaia kendua da. Pinto eta Minutx bakarrik.

MINUTX

—Nik egin dut hutsa eta biak gartzigatuak gira. Hori ez da xuxen. Peiori aitortuko diot egin dutana eta galdeginen zu bederen utz zitzan barnean.

PINTTO

—Ni ere zurekin nintzan. Beharrik laster jin da Peio. Arbolari goiti abiatu gogo nuen eta ene kargarekin ez dakit zer gertatuko zen.

MINUTX

—Ez dugu eguberri manera huntan pasatzen ahal. Behar dugu zerbait egin.

PINTTO

—Nik badakit zer egin. Gure adixkide guzien laguntzarekin guhaurek muntatuko dugu izai bat. Ikusiko duzu. (*Leiotik kanporat*)

oihuz) O! O! Nun zira Mattin hartza? Zure beharretan gira (*burua agertzen du leiotik*).

HARTZA

—Ene laguntza beharretan zirezte? Zer egiten ahal dut zuentzat, adixkideak?

MINUTX

—Hortxeko oihan hortarik ekartzen ahal ote zinueke izai bat eder-
rra?

HARTZA

—Hori ene meneko lana da. Ixtantean ukanen duzue oihaneko izai ederrena (*badoa*).

PINTTO

—Ikusten duzu, Minutx? Orai bertze adixkide guziak deituko ditugu (*leiotik oihuka*) Hep! hep! jaun ahate! Zato hunaraino, zure beharretan gira (*sartzen da ahatea*).

AHATEA

—Zer da zuen zerbitzuko?

MINUTX

—Hola eta hola gertatzen zauku. Zerbait gisaz laguntzen ahal ote gituzu izai baten apaintzen?
(*Sartzen da hartza izai batekin*).

HARTZA

—Agur jaunak eta andereak! Ni naiz hartz gaizoa, gorputzez haundia, puxka bat pizua, bainan ez gaixtoa. Bihotza dut zabala eta nahi dut lagundu beharretan dena. Horra zendako Mattin gaizoak ekartzen duen oihaneko izai ederrena.

PEIO

—Gaizo Mattin! Banakien zuri fidatzen ahal ginela! (*lehenbiziko izai hura bera buluzirik ezartzen dute xutik*)

MINUTX

—Nik berehala ezartzen dut, izar baten pare gaineko kaxkoan, ene lepoko xingolazko floka (*kentzen du eta izaian ezartzen*).

AHATEA

—Nik emanen dauzkizuet ene lumarik airosenak eta pollitenak izaietik dilindan ezartzeko.

MINUTX

—Ezarriko ditut berehala (*egiten ditu*).

PINTTO

—Nik ene lepoko xilintxa ezarriko dut (*egiten du*).

AHATEA

(*Badoa*). —Agur adixkideak. Lana bururatzen duzuelarik jinen niz ikusterat.

HARTZA

—Ni ere banoa. Ez ditut oraino ene egitekoak bururatuak. Sarri artio.

PINTTO

(*Arbolan ezarri xilintxa inarrosiz*) eta *Minutx*.—Agur eta esker-mila bihotz-bihotzetik!

(*Ahatea eta hartza joaiten dira. Leiotik aditzen da: beee! beee!*)

PINTTO

—Xo! Ardia aditzen dut kanpotik agurka. (*Letorat badoa*). Egun on ardia. Nun zabilta hola?

ARDIA

—Nun zer ikusiko dutan nabil, hantxet ta hementxet belar puxtuka batzu milikatzen ditudala. (*Izalari so*). Zer duzue zuhaitz hori?

MINUTX

—Eguberriko izaiia. Gure adixkide guziekin nahi dugu apaindu. Zerbait emaiten ahal ote daukuzu zuk ere?

ARDIA

—Gogotik. Ene lenazko arropa huntarik emanen dauzuet (*puxtuka batzu errotik ateratzen ditu*). Ontsa harroturik ezartzen baduzue han eta hemen adarretan iduriko du elurra egina duela.

MINUTX

—Ezartzen ditut berehala (*ontsa harrotuz ezartzen ditu ardi ile puxtukak zuhaitzean*).

PINTTO

(*Izaiari so*). —Ene iduriko, Peio eta Katixaren izaia baino ederra-
goa izanen da gurea.

(*Leiotik entzuten da: Hi han! Hi han!*)

PINTTO

—To! Asttoko hemen dugu agur erraiterat jina. Sar zite, asttoko,
sar zite!

ASTTOKO

(*Sartuz*). —Jesus! Zer ari zirezte?

MINUTX

—Ez duzu ikusten? Eguberriko izai baten muntatzen...

ASTTOKO

—Holakorik oraino! Zer gauza xoragarria!

PINTTO

—Oraino ederrago izan dadin, behar bada, zerbait bazinuke guri
eskaintzeko?

ASTTOKO

—Ez niz aberatsa. Bainan tegian baditut urre kolorezko lasto pitu
pollitak. Zato enekin, emanen dauzkitzut gogotik (*Asttoko eta Pintto
ateratzen dira*).

MINUTX

(*Arbolaren apaintzen beti*). —Gure lana gustatzen zauzu?

ARDIA

—Uste nuke... Uzten zitut. Banoa bildotxa zertan dutan ikusterat.
Sarri elgarrekin jinen gira zuen lanaren ikusterat.

MINUTX

—Ba, sarri artio. Eta eskermila zure laguntzarentzat. (*Ardia ate-
ratzen da. Pintto sartzen besatra bat lastorekin. Izar batzu jadanik
eginak dira piruak erditik elgarri josirik. Dilindan ezartzen dituzte
eta lastoa lurtean berduratzen*).

PINTTO

—Badugu zer nahi garnigailu. Ene ustez gure izaia izanen da
pollitena.